



## **EUSKARAZ BIZITZEKO BEHAR DEN DENA**

Euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdi linguistikoan gaude. Datu soziolinguistikoek, eguneroko bizipenek eta azken urteetako joerek argi erakusten digute: suspertze zikloa agortzen ari da, eta atzeraldiaren arriskua handia da. Arnasguneak ahultzen ari dira, erabilera apaltzen eta eskubideak kolokan jartzen. Oldarraldi judizial, politiko eta mediatikoak euskararen desofizializazioa elikatzen du. Globalizazio homogeneizatzaileak hizkuntza nagusiak indartzen ditu, eta minorizatuak ahultzen.

Baina lehenago ere egon gara kinka larrian, eta milaka euskaltzaleren ekimenari esker sortu dira pizkundek. XX. mende hasieran, euskara “eri gaizki” zela esan zutenek lehen susperraldiari ekin zioten. Frankismoaren azken urteetan, “putzu sakon eta ilun” hartatik ur gazi bat atera zuten milaka herritarrek. Ikastolak, gau-eskolak, euskara batua, kultur sistema oso bat, hedabideak, ezagutza soziolinguistikoa. Guztia haize kontra.

Guztia haize kontra egon denean, euskaltzaletasuna aktibatu da.

Guk, Pasaiako euskalgintzan gabiltzanok, badakigu zer den hori. Badakigu zer den herri bat aktibatzea. Badakigu zer den jendea saretzea, ilusioa piztea, konpromisoa eskatzea. Badakigu zer den txinparta bat piztu eta sua zabaltzea.

Eta gaur, txinparta hori behar dugu.

Euskarak jauzi bat behar du hizkuntza-politikan. Paradigma aldaketa bat. Ezagutza benetan orokortuko duten politikak, erabilera normalerako baldintzak sortuko dituzten neurriak, ofizialtasuna Euskal Herri osoan, zeharlerrotasuna politika publiko guztietan. Tresnak badakizkigu. Oinarriak landuta daude. Adostasun sozial zabala eraikitzen ari da.

Baina jauzi hori ez da bakarrik maila instituzionalean erabakiko. Indar soziala behar du.

Horregatik, ekainaren 13an Iruñean hitzordu bat dugu. Pizkunde berri baterako bidean, Euskaltzaleon indarra erakusteko une kolektiboa. Hizkuntza-politikan jauzi ausarta exijitzeko unea. Herri erronka erraldoia.

Sinetsita gaude, herri honek badu indarra. Badu antolatzeko gaitasuna. Badu ilusioa. Orain, indar hori bideratu behar dugu. Eta bide horrek ekainaren 13an geltoki garrantzitsu bat du.

Mundua hizkuntza minorizatuen kontra badator, guk euskara jarriko dugu mundu bizigarriago baten alde. Eta badakigu hori zuek bezalako euskaltzale antolatuek egiten duzuela posible.

Horregatik, euskaltzaletasuna da gaurko giltza. Euskaltzaletasuna da itzaropena. Ez soilik euskararen aldeko jarrera gisa, baizik eta gizarte hobe baten aldeko konpromiso gisa. Gure eskubideak urratzen direnean ez isiltzea. Gure egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak egitea. Antolatzea. Elkarguneak sortzea. Elkarren arnasa izatea. Txinpartak piztea. Eta txinparta horiek guztiak elkartzeko, indarra erakusteko eta jauzi hori exijitzeko, hitzordu bat dugu:

Ekainaren 13an, Iruñean.

Pasaiatarrei euskaltzaletasunaren bilgune handi horretara joateko deia luzatzen diegu gaur hemen, eta bertara iristen laguntzeko autobusak antolatuko ditugu. Pasaiatik zuzenean Iruñera joan nahi izanez gero, [www.pasaia.eus](http://www.pasaia.eus) webgunean eta Bokale Pasaiako Euskararen Aholku Batzordeko sare sozialetan aurkituko duzue autobusean izena emateko aukera. Autobusak geldialdiak izango ditu Pasaiako lau barrutietan. Pasai Donibaneko Meipiko geralekutik 14:50ean aterako da eta ondorengo geldialdiak egingo ditu: Pasai Antxoko Ibaiondon 15:00etan, Pasai San Pedroko geralekuan 15:10ean eta Trintxerpeko postetxe pareko geralekuan 15:15ean. Adinez nagusiek 10 euro ordaindu beharko dute, eta jubilatuek, langabetuek, haurrek eta gazteek 5 euro.

Ekainaren 13an bil gaitzen eta piztu dezagun euskaltzaletasuna. Euskararen Etorkizuna jokoan dago. Baina etorkizuna gure esku ere badago.

Euskaltzaleon garaia da.